


IKASLEEN TXOKOA|48|

ZENBAKIA

IES HERNANI BHI



Euko Skills lehiaketa / II

IURGI LOS ARCOS
JON GALDOS
OIHANE IRAZU

Leonardo eta Erasmus bekak / III



AINHITZE KALONJE
IKER LUNARO
JON RUIZ
XABIER VELEZ

Lan teorikoak eta praktikoak uztartu ditugu kurtsoan / IV



GIZARTE ETA KULTUR
ANIMAZIOKO IKASLEAK



Etorkizuna landuz

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

IES HERNANI BHI

EUSKO SKILLS LEHIAKETA

«Garrantzitsuena, lanarekin gustura bukatzea»

Hitz gutxitan azaltzekotan, esperientzia ahaztezina izan da Eusko Skills lehiaketa. Bertan, norberak bere abileziak eta trebetasunak erakutsi behar ditu. Denboraren aurka aritzen zara lanean, eta horrek tentsioa eta urduritasuna areagotzen ditu. Hala ere, urduritasuna lehendabiziko proban egoten da gehienbat.

Argi dago partehartzaile guztien helburua irabaztea dela, baina benetan garrantzitsuena zure lanarekin gustura amaitzea da, eta nik, behintzat, halaxe bukatu dut. Nire Skill-ari (Fabrikazio mekanikoko diseinua) dagokionez, batzuentzat denbora gutxi zegoen ariketak egiteko, eta beste batzuk prestakuntza falta nabarmendu dute, baina nire kasuan ez da horrelakorik gertatu eta eginda-

ko lanarekin pozik itzuli naiz etxera. Beraz, lehen esan bezala, oso bizipen polita izan da.

Gainera, egun bakoitzeko ariketak amaitzerakoan, estresa eta tentsioak kentzeko hainbat ekintza zeuden egiteko. Lehenengo egunean piraguan ibiltzera joan ginen, eta horrek lehiaketatik deskonektatzeko balio du. Eguraldia ere lagun izan genuen arratsalde hartan. Bigarren egunean, aldiz, barkuz bidaia bat egitera atera ginen, Bidasoa ibaian zehar.

Etxera itzultzean, familiakoek edo lagunek lehiaketaren inguruan galdetzerakoan, honako hau izaten zen nire erantzuna: «Oso esperientzia ona izan da, astebete gehiago geratuko nintzateke». Eta halaxe da, bizipen polita baina motza izan da. Inongo zalantzarik gabe, errepikatuko nuke, baina adinak asko



Iurgi Los Arcos lehiaketan parte hartzen.

mugatzen du.

Era berean, jende berria ezagutzeko aukera ere ematen dizu, nahiz eta hiruzpalau egunetan denbora askorik ez eduki. Horregatik, zure proba berdinean lehiatzen den jendearekin hitz egiten duzu gehienbat.

Amaitzeko, azpimarratu nahi nuke antolatzaileek egindako lana, ez baita erraza horrelako lehiaketa bat antolatzea, eta eskerrak eman nahi dizkiet jasotako tratuaengatik..

EGILEA:
Iurgi Los Arcos

«Ahal badut, 2013an han izango naiz, irabazteko asmoarekin»

2012-ko EuskoSkills izugarritzko esperientzia izan dela onartu beharra dago. Jende asko ezagutzeaz gain, zertarako gai diren eta zein gauza harrigarriak egin zituzten ikusteko aukera izan genuen, bai eta gure "skills"ak erakusteko aukera ere. Gainera, aspertzeko denborarik ez genuen eduki, txapelketaz aparte zenbait ekintza antolatu zituzten, esaterako, piraguan ibiltzea, eta genuen denbora libre gutxian ikasi eta ikasi aritzen ginen hurrengo eguneko froga prestatzen.

Txapelketatik kanpo, oso ondo zaindu gintuzten. Hoteleko egonaldia oso erosoa izan zen, eta gosari, bazkari eta afariak primerakoak izan ziren. Agian parrandaren bat edo beste faltatu zitzaion egonaldiari, baina egia esan nekeak eta denbora faltak ez ligukete denbora askorik utziko...

Berriz diot, 2012-ko EuskoSkills izugarritzko esperientzia izan da, eta ahal izanez gero, hurrengo urtean hantxe izango naiz berriro, garaipena etxera ekartzeko asmoz.

EGILEA: Jon Galdos



Jon Galdos eta Oihane Irazu, lehiaketan.

«Esperientzi berria izan da»

EuskoSkills-etako irteera oso interesgarria eta polita izan da, izan ere, ikastetxean ikasitakoaz gain bertan ere asko ikasi genuen, bai beste irakasleengandik, bai aurkariengandik, eta baita lehiaketatik bertatik eta beste skills-etako ikasleengandik ere. Lehiaketara joan aurretik, gure irakaslearekin zenbait ordu pasa genituen egin behar genuen guztia ondo genekiela ziurtatzeko eta edozein duda genuela ere bera prest zegoen guri laguntzeko.

Hau guztia egiteko, hau da, garraioa, gosaria, otorduak, hotela, aktibitateak eta beste zenbait gauza beraiek antolatu eta ordaindu zituzten, beraz, guk lehiaketan ahalik eta ondoen egiteaz arduratu besterik ez genuen. Goizean goiz esnatzen ginen gosaltzeko, bederatzietarako Ficoban egoteko eta bertan egoten ginen arratsaldeko 6ak arte konpetitzen, zuzentzen eta beste ikasleek egiten zutena ikusten. Ondoren, zenbait aktibitate egiteko aukera genuen, Hondarribira bisita, piraguan ibili, stand up egin edo itsasontzian buelta bat. Nik, lehenengo egunean Hondarribi bisitatu nuen eta hurrengo egunean stand up padel egin nuen.

Egun horiei esker, esperientzi berri bat bizitzeko aukera izateaz gain, jende berria ezagutu eta lagunak egiteko aukera izan nuen.

EGILEA: Oihane Irazu

Ikasleentzako txokoa

48
zenbakia

euskara
ari du

LEONARDO ETA ERASMUS BEKAK

«Esperientziak askorako balioko dit»

Hiru hilabeteke esperientzia hau izagarri aberasgarria izaten ari da. Padovara iritsi nintzenen ez nuen



inor ezagutzen, baina egunak joan egunak etorri, lagun berri pila egin ditut. Euskal Herritik etorritako 20-25 bat lagunek osatutako taldetxoak egin dugu bertan, baita Espainiatik etorritako beste batzuekin ere. Pisukide bezala ere handik etorritako hiru mutil ditut, horietako bi gainera sukaldariak, eta beraz, janari gutxi prestatzea tokatu zait.

Hemen nagoenetik toki ugari eza-gutu ditut, Milano, Venezia, Verona, Lago di Garda... eta baita Padovako kale kantoi guztiak ere, guztiak zoragarriak. Italiako bizitzak duen eragozpen bakarra dirua dela esango nuke, hainbeste buruhauste eman dizkigun dirua! Garraioa, janaria, arropa... dena da han baino garestiagoa, baita bizioak ere. Padovako taberna guztiak zeharkatu behar izan ditugu prezio onargariak dituen taberna batean kaña bat hartzeraz iritsi arte.

Hizkuntza, hasieran behintzat, nahiko arazo izan zen, ez baita hain erraza eta ez baitu gaztelaren hainbesteko antzarik, alora, ankora eta magari arte-

an galduta ibili ginen lehenengo egunetan. Baina jaso dugun ikastaroarekin, lankideek erakutsitakoarekin eta parrandan ikasitakoarekin ia dena ulertzeraz iritsi gara. Lanean ere oso gustura nabil, harrera ona egin didate eta nahiz eta batzuetan zortzi orduz lan egitea oso nekagarria izan, asko ikasi dut.

Praktikei buruz zerbait gehiago azaltzea? ez dakit ba... egia esan ez dut gauza ezberdin asko egiten baina bueno... zer edo zer idazten saiatuko naiz oraintxe.

Instalazio elektrikoaren eta instalazio fotovoltaikoaren diseinuak egiten diren estudio txiki batean lanean nabil, auto CAD programaren bidez mota guztietako instalazioak egiten, jateak, enpresak, etxebizitzak etabarren diseinuak, planoak marrazten, kuadro elektrikoak osatzen eta eguzki panelentzat teiltatutako diseinuak egiten. Egunean 8 orduz lan egiten dut, astean bost egunez. Egian esan, ez dakit zer edo zer gehiago kontatzeko ba ote duen nire lan esperientziak, hauxe da eguneroko nire lana, ez du besterik.

Esperientzia honek bizitzan askorako balio duela iruditzen zait eta edonor animatuko nuke nirea bezalako esperientzia honetan parte hartzeraz, bizitzan behin bakarrik suertatzen baitira horrelako aukerak. Laister arte, ci vediamo presto a Hernani!

EGILEA: Ainhitze Kalonje

«82 urteko pertsona batekin egiten dut lan»

Hemen Italian oso gustura nabil. Esperientzia oso polita da. 3 hilabetetarako etxetik kanpo bizi, jende berria eza-gutu, lan esperientzia berria eduki eta hizkuntza berri bat ikasi, beste pertsonen arteko konbibiencia probatu. Konbibiencia ez da xamurra kontutan hartuta 18-20 urte inguruko pertsona dexente dagoela, baina nere kasuan ez dut zailtasunik izan edade handiagoko jendearekin tokatu zaidalako eta horrek asko errazten du dena.

Bizitza Euskal Herrian baino garestiagoa da, azkenean poltsikoan nabaritzen da egiten diren gastuak han baino handiagoak direla. Gehien notatzen dena pote batzuk hartzean edo parranda egiterakoan da.

Toki oso politak daude: Bologna, Florentzia, Venezia, Cerdeña..... Pena merezi du toki hauek bisitatzeko, benetan, parrandan gastatu beharrean dirua tokiak bisitatzeko gastatzea.

Nere lantegian oso gustura nago. Egia esan suertea eduki dut jende oso jatorra dagoelako eta lantegian, orokorrean oso lan giro polita dago. 82 urteko pertsona batekin ari naiz lanean beste pertsona heldu bat eta tailerko enkargatuarekin batera. Kriston parrak botatzen ditut lankideekin, oso ondo hartu naute hasieratik eta hori eskertzekoa da.

Lanean tornua, fresagailua ta gure eskolan ez dauden elektroerosio makinak erabiltzen ditut ta enkargatuak gai-



nera autocad programa erakutsi dit beraz, oso ondo nago tokatu zaidan enpresarekin. Gainera enpresarekin presentazio egunean galdetu zidaten ea noiz neukan joateko intentzioa, normalean eskaintzen dutelako ekaina edo uztaila bukaera arte gelditzeko aukera, hori bai praktikak bukatzean lan kontratuarekin eta kobratzen. Horregatik, datozen egunetan jefearik hitz egin behar dut ea ze kondizio jartzen dizkidaten, zenbat kobratuko dudana eta hori guztia. Ordaindu beharrekoa ordaintzeko eta hemen bizitzeko ematen badit gelditzeko aukera oso polita izango litzateke, baina ondo pentsatu behar dut.

Bueno besterik gabe eskuminak denei eta laster arte. Aiioooooo

EGILEA: Iker Lunaro

«Ingelesa ikaragarri hobetu dut eta gauza asko ari naiz ikasten»

Oso gustura nago, nahiz eta praktikak egiterakoan enpresa egokiena ez zaidan egokitu. Hala ere ingelesa ikaragarri hobetu dut eta gauza mordoak ikasten ari naiz!

Bristol dagokionez ikaragarria da! 500.000 biztanletik gora dituen hiri nagusi bat da eta 20.000 espainiar inguru daudela kalkulatu da. Horrez gain biztanleriaren batzuek beste adina oso gaztea da! Bristoleko unibertsitatea dela eta kultura desberdineko jendea aurki dezakezu edonon: txinatar mordoak, indio ugari, musulman asko eta europako leku guztieta-ko jendea... ezagutzeko aukera dago. Horregatik hiri multi kulturala dela esan daiteke argi eta garbi, bai erlijioaren aldetik, bai musikalki eta baita artistikoki ere. Erlijioaren arloan esan beharra dago protestantismoa Ingalaterran sortu zela, beraz kristauen artean katolikoak eta protestanteak daude. Hori dela eta, eliza eta katedral asko eta asko dago, batak besteari konpetentzia egiteko lehian. Horrez gain Gospel mezak astero daudenez, bat ikusteko aukera izan dut.

Bestalde kultura musikala oso handia da. Bertako jendeak eskolan instrumentu bat edo bi erabiltzen ikasten dute eta horrek gizartean eragin handia dauka izan ere bertako jendearen errepertorio musikala oso



zabala da. Horrez gain, irratieta-ko musikak ez du zer ikusirik gure herrialdean entzuten dugunarekin, hau da, ez dago musika komertzialik eta abesti guztiak klasikoak dira! Musika denda eta musika mota desberdin asko daude eta egia esan binilo oso merkeak aurkitzeko aukera dago.

Bristoleko kultura artistikoa nabarmena da. Hirian zehar graffiti mordoak ikusi daitezke, aipagarrienak

Bansky grafitigile anonimoarenak dira. Badira zenbait kultura ingelesa islatzen dutenak argi eta garbi. Bestalde "street art" eta gaur egungo artearen erakusketak ugariak eta oso arrakastatsuak izaten dira.

Bristolen gauero dago festa giroa! astelehenetik hasi eta iganderarte dago parranda, nahiz eta ostegunetik aurrera nabarmenagoa den. Aipatzekoa da gure ohituren oso desberdina dela gaueko bizitza, kuadrilla kontzeptua ez dago. Bertako jendea lagun bakararekin edo birekin ateratzen da, hau da, oso talde txikietan ateratzen dira eta talde handia izanda arazoak izango dituzu tabernetara sartzeko, izan ere, segurtasun atezainek debekatu egingo dizue sarrera batez ere jada zer edo zer edanda ikusten bazaituzte, nahiz eta bertan kontsumituko duzula adierazten badiezu ere.

Horrez gain esan beharra dago, bertako jendeak asko edaten duela. Arratsaldeko 8retan kriston mozkorrak ikusten dituzu eta gauen berriz konorterik gabe. Hiri honek duen beste arazo larri bat drogen mundua da. Nahiz eta polizia asko egon eta bideo kamerak edonon izan, ikaragarria da zenbat "proiektu hombre" bezalako talde dauden jendea berriz ere gizarteratzeko.

EGILEA: Jon Ruiz



«Udalean egiten dut lana eta Italiako klaseetara joaten naiz»

Guk hemen Italian, gaur kriston beroa daukagu!!!! Kontatzeko gauza gutxi.

Ba ni udaletxean ari naiz lanean. Astero Italianoko klaseak ditugu, eta aprobetxatu behar ditut zeren bekak ordaintzen dituen gazetariko bakarrenetakoa da, hori eta logela konpartitu bat. Hemen jendea ez dago oso gustura beken asuntorekin, zeren dirutza bat gastatzen du hilabetero.

Eta zer gehiago kontatuko dizuet? Ni Pistoian nago bizitzen, 80 mila bizilagun gutxi gora behera eta Iker Pratonetik 180 milatara gutxi gora behera. Lasaia dira biak hemendik 40 km-tara Firenze daukagu, oso polita, eta trenak ondo komunikatuta daude (grebarik ez dagoenean).

EGILEA: Xabier Velez



Animazio soziokulturaleko ikasleak.

«Lan teorikoak eta praktikoak uztartu ditugu kurtsoan»

Denok ditugu gogoko udako oporrak, lagunekin igarotako uneak, aisialdi uneak... eta ez hain gogoko iraileko bigarren asteko klasera buelta. Unea iritsi zen, zerbaitek, nonbait, elkartzeko unea. Ezezagun izatearen sentsazioa berriro ere sentiarazteko momentua iritsi zitzaigun hogeita lauoi. Guztion topaleku izan zen Hernani B.H.I. Institutuko Goi Mailako Lanbide Heziketako Ziklo berria; Gizarte eta Kultur Animazioa.

Irakasle berriak, ikaskide berriak, institutu berria, ohitura berriak... nor ez da sekula egoera honetan egon? Horrela sentitu ginen gu ere. Ezjakintasunaren mugak gainditzeko unea iritsi da. Zer da Gizarte eta Kultur Animazioa? Definizio oso zabala eman diezaiokegu galdera horri, baina onena gure esperientziaz baliatzea izango da.

Hiru bloketan banatuko dugu ziklo honetan lantzen duguna: gizarte eta gai

sozialak, talde dinamizazio eta aisialdia eta lan munduratzeara.

Egunerokoa baliagarriak diren gauzak ikasten ditugu Lanaren inguruan esan dezakegu gai interesgarrienetarikoa bat dela, besteak beste gure egunerokotasunean baliagarriak diren gauzak ikasten baititugu, adibidez lan kontratuen nondik norakoak, curriculumaren erabilera eta gauzatzea, langileen eskubideak...

Gizarte eta gai sozialei dagokienean, beste puntu interesgarri bat iruditzen zaigu. Esan daiteke gai horrekin eguneroko bizitzan aplikatuz teknika ikasi eta landu ditugula. Beste herrialdeetako kulturen ardatzak, kultur aniztasuna, boluntario lana, besteak beste. Honen barruan sartu daitezkeen beste puntu bat bizitzako etapak izan daitezke. Horretarako etapa bakoitza sakonki landu

dugu alde teorikoan eta praktikoan ere bai. Aipatzekoa da, horren analisia egitea oso interesgarria egin zaigula, izan ere, gure lanerako sostenguak baitira bizitzako fase ezberdinetan. Azken etapa hauek lantzeko, zahar etxeetan, ludoteketan, ikastetxeetan... praktikak egiteko aukera izan dugula. Bestalde, ikasi dugun beste gauzetako bat gizarte "esku-hartze metodologia" da, hau da, gizartean behar bat topatu, hori gainditzeko proiektu bat egin eta proiektua gizartean nola aplikatuko litzatekeen ikastea.

Azkenik, talde dinamika eta aisialdiari dagokionez hainbat lan praktiko eta teoriko burutu ditugu: eskulan ezberdinak, txotxongiloak, antzerkiak, dantzak, "lip dub-a"... Baita aisialdian egin ditzakegun ekintza ezberdinak edo teknika berriak ikasi ere. Hauek egiteko garaian, ekintza berri-tzaileak sortzen saiatu gara.

Egunerokotasunetik atera eta ideia originalak sortuz.

Ziklo honetan egiten diren lan gehienak talde lanak direla esan beharra dago. Honela gure artean harremanak sendotzea ahalbidetzen du eta taldean lan egiten ikasten dugu.

Beste alde batetik, kurtsoan zehar irteera ezberdinak egiteko aukera izan dugu; San Telmo museora, Iñaki Perurenaren "Peruharri" museora, Leitzarango bailarara, Tolosako txotxongilo jaialdira, Iturengo inauterietara, Miramonera, epaitegira, Tolosako "Zuloaga Txiki" aterpetxera. Azken finean Hernani inguruko ekintza kulturalen eskaintza ezagutzen ahalegindu gara.

Eramangarria da, gauza interesgarriak eta eraginkorrak lantzen direlako

Bukatzeo, balorazio bat egin beharko bagenu, esango

genuke kurtsoa eramangarria egiten dela, gauza interesgarri eta eraginkorrak lantzen direlako. Pertsonalki aisiaren mundua eta gizarteko kezka daukaten pertsonak ziklo hau egitera bultzatzen ditugu. Eta teoria praktikara bideratzen dugunez, esperientzia lortzen dugu, eta guztiz baliagarria da hori lan munduan era egoki batean barneratu ahal izateko. Beste barnerapen aipagarri bat da dinamizatzen ikasi dugula, horrekin batera, hainbat eratako harremanak izan ditugu gure ikas-kideekin, baita praktikak egin ditugun pertsonekin ere. Azkenik, ikasturte honen bitartez, beste hainbat ikasketak burutzeko aukera lor dezakegu, bai beste goi-mailako zikloetan eta baita unibertsitatean ere.

Honebestez, animatzen zaituztegu gurera etortzera. Ziur ondo pasako duzuela.

EGILEA: Gizarte eta Kultur Animazioko ikasleak